

## Bizkaiko Taldekakoa Bertso Txapelketan, Arratiako talde bi

12. orrialdea



## Txikon bidea ekipetan barrero

Kontratautako agentzia nepaliarragaz izandako arazoak Katmandun konpondu ostean, Everest-eko Behe Kanpalekuan bueltan zan Txikon, BEGITUko zenbaki hau zarratzerakoan. Txikonek ondo eta indartsu da-goala dino eta Everesteko tontorra neguan eta oxigeno artifizial barik zapalduteko erronkeari eusten deuto. **11. orrialdea**

## Zinegoak jaialdiko sei film labor proiektuak dira Igorren

12. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 269

2017ko martiaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org



## Arratiako andrak martxan

**M**artiak 8, Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan ekintza ugari prestatu ditue Arratiako andra taldeak, talde feministak, udalak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak alkarlanean. Arratia mailakoak, martiaren 8ko konzentrazioa Igorren eta Arratiako Andren VII. Mendi

Martxea dira.

Erakusketak, berbaldiak, antzerkia, jantza, bertsoak, zinea eta Zeanuriko andrak gerra sasoiari bizi izan ebena jasoten dauan dokumental baten trailerraren aurkezpena egongo dira Arratian martiaren 3an hasi eta 15aren bitartean. **5. orrialdea**

## Errota proiektua garatzen



**A**rratiaren garapenerako Errota proiektua alkarte bihurtu zan 2016ko urte amaieran. 2017a hasteagaz batera Iratxe Goikoetxea Aldekoa koordinatzaile beharretan hasi zan bertan.

Errota proiektuko lehen batzarrak 2015 urte hasieran egin ziran. Taldea sortu, oinarriak landu eta diagnostiko bat egin zan Azaro Fundazioaren laguntzeagaz. Hortik Ekintza Plana atera zan, 2030erako Arratia ideala definitu eta hori lortzeako erronka konkretuak zehaztu ziran. Lau ildo edo arlo nagusi bereizten dira: arlo pribadua, hiru sektoreak barne, arlo publikoa, hezkuntza eta gizartea.

Orain, Arratia modu jasangarrian garatzeko erronkeari erantzuteko alkarteak irabazi asmo bako eta onura publikoko fundazio bihurtzeko asmoa dauka.

Koordinatzailearen ustez, Arratiakoa sano gizarte heldua da eta baliabide eta balio handiko jentea ditu hartutako erronkak beteteko. **8. eta 9. orrialdeak**

### ARANTZAZU

## Txorietxeko urak batzeako dirua udal kontuetan

Arantzazuko udal kontuak zezeilaren 14an onartu ziran aldeko EH Bilduko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Egingo diran inbersinorik inportanteenak, herriko kasakoan argiak aldatzea eta Txorietxeko bidea konpondutea izango dira. Argiai jagokienean, magnesio argien orde LED teknologia erabilten dabena ipiniko ditue.

Txorietxeko bidean ubide bi dagoz eta Udalak ur horreek batu gura ditu ubide bakar baten. Gainera harria bota eta bidea txukuntzea be aurreikusita dago.

Goirirantza doan bidean dagoan munurrutua konponduteko 3.000 euroko diru partidea dago eta "beste finanziaizino modu batzuk" topauko dituela azaldu deuto BEGITUri Igor Menika Arantzazuko alkateak. **7. orrialdea**

### IGORRE

## Gazte Akelarrea apirilaren 13tik 16ra

Ernai eta Aitzina Gazte Antolakundeak antolatuten dabena udabarriko ekimena Zornotzatik Igorrerako martxa bategaz hasiko da apirilaren 13an. Hurrengo egunetan Igorren egingo ditue Euskal Herriaren independentziaren aldeko topaketak eta hilaren 16an, gazteak Gernikara joango dira Aberri Eguna bertan ospatzera.

Hiru egunerako bonoak zein ekintza solteetan parte hartzeako eguneko sarrerak salgai dagoz. **6. orrialdea**

### ZEANURI

## Maiatzaren 7ko herri galdeketako itauna ebatzi dabe zeanuriztarrak

Gure Esku Dago dinamikearen barruan, Zeanurin be herri galdeketea egingo dau horretarako sortutako Gaure Eskuetan alkarteak. Itauna, 30 herritar inguruk ebatzi eben talde dinamikearen bitartez, zezeilaren 15ean eta hauxe da: "Gure dozu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?". Zeanuri herri galdeketa egiten dauan Arratiako bigarren herria izango da. **7. orrialdea**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umeen moda  
**10. URTEURRENA**  
Marian eta apirlean  
60€ko bonoaren zozketea  
ESKERRIK ASKO HOR ONDOAN EGOTEAGAITIK  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • [seinmoda@hotmail.com](mailto:seinmoda@hotmail.com)

## ARRATIA KOLOREETAN

## NEU BE MATXISTEA NAZ

Iraintzat hartzean badogu be, matxistak gara. Matxismoa neskalaguna jotea eta suetea andrazkoentzat gordeta dagoan eremua dala pentsetea baino ez dala uste dogu, baina egunez egun ekintza (mikro)matxistak birproduziduten doguz. Inguruan dogunak hezi gaituan bitartean hori dalako ikasi doguna. Transmisioaren soka amaitubakoan ordua da gogoeta egin eta korapilo bategaz, txarto egiten doguzanak aurrera joaten ez itxia.

Lehenik eta behin txarto egiten gabilazan ohartu behar gara, eta kasu honetan, azkenaldian pilpilean dagoan mikromatxismoa

berbeak zer esan gura dauan ikasi behar dogu: andrazkoen eta gizonezkoen arteko bardintasan eza eta jarkera matxistak islatzen eta betikotzen dituen egunerokotasuneko praktikak dira.

Orduan: nork ez dau depilau bako andra bat epaitu? Nork ez dau bere janzkera epaitu edo tentatzen doala esan? Nork ez ditu andra famadunak izenetik deitzean eta aldiz gizonak abizenetik? Nork ez deutso bere alabeari jaiobarritan belarria zulatu belarritakoak ipinteko? Nork ez deutso mutiko bateri "nenaza" deitu negar egin dauanean? Nork ez deutzaz opari desbardinak egin ume bateri muti-

la edo neska izategaitik?

Danok izaten doguz holango jarakerak, bata ez baldin bada beste bat eta oharkabean gure seme-alabak be (guk jaso bezala) normaltaz jasoten ditue egoerok. Ez dogu horregaitik gure burua zigortu behar, baina egunerokotasunean honeri buruz hausnartzeko tartetxo bat hartu beharko geunke.

Ume eta gazteen eredu gara ("Umean zentzune etxean entzune" dino esakerak), beraz, sortu daiguzan ume aske eta hezkidetzailak eta itxi deigun gure urteko pekatuak martiaren 8an eta zemendiaren 25ean arintzeari.

**Zaztarrak Asti Taldea**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Zezeilaren 27tik martiaren 5era**

Rodríguez Martínez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya, Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 6tik 12ra**

Traver, Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero, Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 13tik 19ra**

Badiola, Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa, Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño, Kareaga Goikoa 16, Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notariorza**

94 673 92 26

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arrigorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arrigorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Zeberio-Artea**

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arrigorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tirada:** 7.000 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutzazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Aratuste



Tradizino kristinauaren arabera, Garizuman okelea jateko baraualdia egiten zan. Horregaitik, Hauts-egunaren aurretik, asteko hiru egunetan (domeka, astelehen eta martitzen), jai ez erlijiosoa ospatuten zan, maskara edo mozorroa jantzita: Aratustea edo "haragi uztea" (ahoskatuta: aratústeak, plural ez erabilten dalako). Batuan, Inauteri(ak) da. Beste era honeetara be jaso dogu berba hau Arratia inguruan: Aratizte, Aratoste, Atoste eta Karnabal ("fiesta de la carne"). Itargiaren egutegiak markautako neguko ohitura honen amaieran gauza zaharrak erre egiten dira.

## ERETXIA

### Txernobil = Fukushima = Garona = Zuen etxeko argiaren faktorea

**E**uskaldunok zelangoak ginan azaltzeko, antxina zera esaten ekintzetan luze. Paleolitik gaur arte herri gisa irauteko, akaso, hori izan zan gakoetako bat; auzolana, komunitate zentzu zabal eta sakona, eta andra, gizon zein umeakazko errespetuagaz batera, seguruenik.

Zoritxarrez, balio horreek galtzean gabilz eta gure inguruko herrien bertuteak baino, akatsak kopietan gabilzala dirudi, Garonaren kontrako burrukan esate baterako. Hamarkada luze bi joan dira zentral zaharkitu eta arriskutsu honen aurkako burrukan eta Euskal Herrian ez gara gai izan Iberdrolatik edo Endesatik 50.000 familia/enpresa/udal ospa egiteko, 6.000 baino ez gara joan eta.

Manifestazio pilo bat egin dira, alkarretaratzek, berbaldiak, simulakroak, adierazpen ponpoxoak, Europara joan behar dala ez dakigu zer erreklametan... berba eta hitz asko bai, baina, benetan zenbat gauza eraginkor egin dogu Garona zein estaduko zentralak betiko ixteko?

Zentral nuklearrak arriskutsuak dirala zenbakiak erakusten deuskue, hondamendiaren neurria ezin argiago erakutsi be: Txernobilek eta Fukushimak 200.000tik gora hildako, 700.000 miloe euroko galarak eta 500.000 desplazau sortu ditue orain arte. Istripu bi honeen ondorio lazgarriak ikusita, zentral nuklear guztiak zarratuta egon beharko lirake aspaldi, Japonian Fukushimako eta gero zarratu ebezan 40 zentralak legez.

Orain 30 urte ekologistak esan genduan guztia bete da. Batetik zentralak arriskutsuak zirala esaten genduan eta katastrofistak ginala esaten euskuen. Zoritxarrez, errazoi osoa geunkan eta 25 urterik behin istripu larri bat izan dogu, uste gendua baino gehiago eta uste genduan baino ondorio larriagoakaz.

### GARONAREN KONTRAKO FOROA

Bestetik utopikoak ginala be esaten euskuen, energia aurreztuta eta barriztagariak bultzatuta, zentral nuklearrak ez zirala behar esaten gendualako eta hara non, herrialde gehienak zentralak egiteari itxi deusie eta barriztagarrien alde egiten dabilz. Laster, herrialde batzuk %100ean energia barriztagariakaz funtzionatzera helduko dira, Suedia, Norvegia eta Costa Rica esaterako.

Zoritxarrez hirugarren istripu nuklear bat gertatuko da munduan, denpora kontua da. Estatu espainiarrean, zentralak kentzea lortzean ez badogu, aukera gehiago izango doguz, hemengo segurtasun nuklearra CSNren eskuetan dagoalako. Erakunde horretan dagozan 5 buruetatik, 4 Pepe Gotera eta Otilio eta Mortadelo eta Filemon doguz. Zabalte baimenak obrak egin baino lehen emoten ditue, ebatziak prestatik jakin daikeguz eurak batzartu baino lehen, CSNko bertako teknikarien eretxiaren gainetik pasetan dira, gai horri buruz ez daukie behar dan titulaziorik...

Garonatik Gasteizera 40 kilometro baino ez dagoz, Bilbora 60 km., Ordunteko urtegiara 36 km. Energia nuklearra arriskutsua dala gero eta argiago daukagu, baina zer egiten dogu horren aurka? Etxeko argiaren faktorea jasoten dogunean ikusten dogu zein dan energia horren jatorria?

Gaur egun, elektrizitatea gura deusagunari erosi ahal deusagu eta energia barriztagariak saltzean dituen 20 enpresa inguru dagoz estaduan. Energia barriztagaria saltzean daben enpresa batzuek prezio merkeagoa daukie eta beste batzuek prezio bardina edo, gehieenez, hilero euro bat edo bi gehiago Iberdrolak eta enparauak baino. Hemen prezioak alderatu eta energia barriztagarrien enpresak ezetu ahal dozuz: <https://comparadorfer->

[tasenergia.cnmc.es/comparador/comp2.cfm](https://comparadorfer-tasenergia.cnmc.es/comparador/comp2.cfm).

Eta enpresea aldatutea oso erreza da: enpresa barrian online alta emon eta eurak egingo deusue baja Iberdrolan, Endesan edo gainerako enpresa nuklearzaleetan.

Iberdrolak, urtero 80 miloe euro irabaztea espero dau zentralagaz, baina 50.000 bezero galdu ezker, eta bezero bakotzak urtero 700 bat euro gastetan dauala kontuan hartuz, urtero 35 miloe euro gitxiago poltsikoratuko leukez, eta orduan irabazia murriztu eta, batez be, irudia oso kaltetuta aterako litzateke.

Eta zein da 50.000 lagun lortzeako dagoan arazo? Kontzientzia, berba larregi egin eta gitxi egiten dogulako. Adibidez, ELAK gurako baleu Garona gelditu leike, bere afiliaduen %45 konbenziduko baleu. Edo LABek bere afiliadu guztiak animauko balitu. Edo EAJ-PNVk bere afiliaduakaz. Edo Eusko Jauraritzak be gura dauanean, Iberdrolari udal, aldundi eta Jauraritzaren elektrizitate gastua kentzeako mehatua egingo baleutso. Edo Kutxabankek berak bakarrik be Garona gelditu daike, Iberdrolaren bigarren akzinoduna dalako. Edo PSOEek edo Podemosek haien afiliaduak energia nuklearra ez erosteko animauko balebez.

Baina lortuko dogu, ez soilik Garona gelditzea, gainerako zentral nuklearrak lutzetako baimenak be etetea lortu behar dogu. Baina horretarako berba gehiagorik ez, ekintzaileak behar doguz, hemen 50.000 eta estaduan 500.000 lagun oligopolio nuklearrari agur esango deusana. Orain arte 100.000 pasau gara, estaduan, energia barriztagarrietara. Noz etorriko zara geugaz?

Lemoiz gelditzea lortu zan eta, horri esker, Bizkaiko kostaldean Fukushimako lango hondamendia jasateko arriskurik ez daukagu gaur egun. Ez daigun hori eta hori lortu eban mobimentua ahaztu. Orain Euskal Herriko hegoaldean daukagu arriskua eta indar guztia egin behar dogu hori be geldituteko. Zure esku dago, danon esku dago.

Moztu Iberdrola eta Endesagaz, moztu energia nuklearragaz, betiko!

## LUMATUTEN



## URTZI BARRENETXEA

## ENE 240a

**E**tetik urten danetik artega sentiduten da Ana. Urkuzuko semaforoa berde ipini eta zebrabidetik doala, esango leuke hutsune antzeko bat sentiduten dauala; hainbeste gauza daukaz buruan azken aldian. Beste aldera ailegauagaz batera konturatu da: mobila etxean itxi dau. Barriro emon behar izan deutso semaforoari etxera bueltetako; izan be, nora goaz gaurko egunean telefono barik. Arrastiko seirak eta sei minutu dira.

Handik lau minutura, Ander Azurrekarako semaforoaren parean dago, etxoten. Honeri ez jako aitzu, ez, mobila: Whatsapp dabil hiru taldetako eztabaidetan batera sartuta, mezuak idatzi, eta irakurri, eta idatzi. Halandaze, ez da konturatu semaforoa berde euki dauala. Bigarrenez pasau jako. Barriro jo deutso botoiari.

Seirak eta hamabi dirala, Angelak eta Abdulek segundo bateko aldeagaz sakatu dabe

semaforoko botoia. Angelak, Lemoako gasolindegian dagoan semaforokoa, footing/jogging/running saioa bidearen beste aldetik ahalik eta lasterren segiduteko. Abdulek, Bediako plazakoa: Bilboranzko autobusa hartuko dau, egunero letxe. Istripuren bat egon ete da gaurkoan be? Kanposanturaino ikusten dira kotxeak.

Seirak eta hogeit badira be, ondino ez dau nabartu; arrastiak gero eta luzeago joakuz. Alazne eta Amagoia leuri pareko semaforoaren aurrean dagoz, berde noz parauko etxoten. Arrastiko pasearen ostean etxerantza doaz. Ibilian doazala berbetan egon arren, geldialdi tarte honeetan baxotxa euren burutazioatara gordetzen da.

Alaznek bideko kotxe ilarari erreparau deutso, aspaldiko luzeana, lau garraio berezi eta bederatzi kamioi behintzat ikusi dauz. Argi horreek guztiak Bilboko erregeen kabalgatea ekarri deusie gogora: fenomeno ikusgarri eta neurri berean patetiko bat. Pentsetan dabil eguneroko arazo bihurtu dala trafikoa eskualdeko bide nagusian, eta, abroziduta, ez jako bururatuten zer egin leikean eretxi publikoa arazoaren gainean kontzientziatiko. Zelan antolatatu leitike honen barri emoteko protesta edo antzekoren bat? Hiru bozina desbardinen zaratea zabaldu da airean.

## ZERTZEAN



## IBON IZA

1

Hau Euskal herria da hau ez da Obaba eten bako euriak busti gaitu hara alabak galdetu daust: - Noz dator osaba? - Mila ta sei gau barru igual... beharbada baina datorrenean han egongo gara.

2

Aite osaba non dau... Non dauka komuna? Zertan emoten dauz hak? Gaua eta eguna? Zelangoa da haren ziega baltz iluna? Zergaitik galdu eban behin askatasuna. - Ai nik ez daukat argi horren erantzuna.

3

Aitite negarrez dau negarrez amama ezin kendu ganetik denboraren zama etxean sartu jaku dantzan iragana: - Erdu nire altzora mesedez laztana zure irribarrea da behar dodana.

4

Erantzunak emoten zuri erdi trabes: - Burrukan egin gindun beti tinko aurrez herri hau egoanez ametsen beharrez: - Aite barriro dago amama negarrez. - Emoiozu mosu bat laztana indarrez!!

5

Itto ginean baina ametsen uretan hau ez dogu merezi bihotzez benetan nire galderak dagoz zure galderetan baina konturatu naz behintzat bueltan bueltan erantzunak dauzela zure begietan.

6

Ai zenbat duda eta ai zenbat galdera bildurra joateko modua ete da? Ene pentsakor zagoz maitea ganera: - Aite bihar badator osaba etxera legatza jango dogu guztiok batera.

## BEGI TXINDORRA

**L**emoako Harrobi Futbol Klubaren animazio talde barria eta bakarra gara. 2016. urtean sortu genduan asmo garbi batez: Lurraldeko Hirugarren Mailako nagusien taldea animetea eta ondo pasetea. Hau da, futbolaz bizi ezin garanok, futbolaz modu aktibo baten gozatu ahal izatea. Bertan, astegienero alkartuten gara Arlonagusia zelaiko komerlean, bonbo eta guzti. Etxetik kanpo jokotuten daben partiduetara be hurreratzen gara. Herriko eta inguruetakoa lau belaunaldi eta kuadrila batzean gara euskerazko eta erderazko kantuak kantetan, 30 persona inguru.

Futbola atxakia moduan erabiliz gazte belaunaldi diferenteak antolatutea lortu dogu, belaunaldi barrien eredu izateraino. Lehiakortasun osasuntsua bultzatuz, gaur egungo futbol kutsatuaren alternatiba bihurtu gara (arbitro eta aurkariak errespetatzu eta emoitzetik harago zoriontsu izanda). Lemoako Harrobi taldearen eta gure ilusinoa mailaz igotea da, eta horretan gabiz. Esan be, hemetik deialdia egiten dogula edonori gurera etorteko eta gure animazio taldearen parte izateko.

Hasi ginanetik abesti asko ateratu doguz eta gure idea kantu bilduma bat ateratea da, futbol zelaira hurbilduten diran guztiak letrak ikasteko eta geugaz batera kantetako. Kluba be, pozik dago gure presentziagaz, giro polita sortuten dogulako eta jokariarik motibetan doguzalako. Horregaitik, kutxa bat ipinten dogu partiduro jentek beren aportazio ekonomikoa egiteko, talde animazioaren material gastuak ordaintzeko.

Hurrengo kantua da gure himnoa edo abesti ereserkia:

*Goazen gure Harrobi  
herriaren sukarra piztu dozu  
animazio talde bat dekozu  
etsiko ez duen korer AK-16!*

**AK-16 (Arlonagusia Korner Est-2016)**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITuten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## ARRATIA

# Arratia eta munduko andren egoerak ezetuteko ekintza ugari Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan

"Arratiako androk martxan" lelopean, ekintza ugari antolatu ditue andra talde, talde feminista, udal eta Arratiako Udalen

Mankomunitatearen artean, martiaren 8aren inguruan. Herri bakotzeko ekintzarik interesgarriena eta Arratia mailako ekintza bi, konzentrazioa Igorren eta mendi martxea, jasoten dauz kartel bateratuak



### Erredakzioa

Urtero lez, Andren Nazinoarteko Egunean Arratia mailako alkarretartzea, 19:00etan izango da Igorren, baina aurten lekua aldatu dabe eta errotonda barriaren aurrean izango da. Izan be, andra talde eta talde feministen eretxian, Kultur Etxeko izkina leku iluna da eta barrurantz egin ezker, jente gitxi ikusten dauz andren aldarrikapenak. Ikusgaiago egiteko asmoz herri sarrerako errotonda inguruan batuko dira aurten.

Arratiako Andren VII. Mendi

Martxea hilaren 12an izango da. Partaideak 10:00etan abiatuko dira Arteako plazatik eta hiru bat orduko ibilaldia egin ondoren, kopautxoak izango dabe Arteako Kultur Etxean.

### Herriz herrikoak

Arteako Kultur Etxean, *Emakumeak Afganistanen* titulupeko argazki erakusketea egongo da martiaren 3tik 15era. Arteako Udalak eta Arteako andrak antolatu dabe Euskal Fonda Erakundearen eskutik Afganistango andren errealidadea ezetuteko aukerea emoten dauan

erakusketa hau.

Gizon eta andren denporearen erabilerearen gainean egingo dau berba Matxalen Legarreta UPV-EHUko irakasleak martiaren 6an Igorreko Kultur Etxean arrastiko zarpiretan, eta denporearen erabilereak aukera desbardintasunean daukan eragina azalduko dau "Etxeko lana eta zaintzan dohaintzan emondako denporea: beteteko betebehara?" izeneko berbaldian.

Martiaren 8an, Arantzazun, Arratia mailako konzentrazioaren aurretik, herrian be alkarretartzea egingo

dabe. Arrastiko seiretan izango da plazan.

Hurrengo egunean, hilak 9, Shakti Olaizolak zirkua, antzerkia eta jantza biltzean dituan *Irakurriz* izeneko ikuskizuna eskeiniko dau Areatzako Udal Aretoan 19:00etan.

Bertsu eta beste berba modu batzuetan oinarritutako ikuskizuna taularatuko dabe martiaren 10ean, Lemoako Karabie Gaztetxean 19:00etan, Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal aktoreak. *Erradikalak gara* izeneko lan hau Korrika kulturalean estreinau dabe eta Arratiako Korrika Kulturaleko ekintza be bada. Ondoren kopautxoak egongo da.

Zapatuan, hilak 11, Dimako Abaro aretoan, hau da, gaztetxean, *Larru azalean* izeneko ipuin saioa eskeiniko dau Ikusi Makusi Produkzioak taldeak arrastiko zarpiretan. Bederatzietan, "andren afaria" egongo da Taberna Barrin.

Bediako liburutegian zineforuma eta kopautxoak egongo dira martiaren 13an, arrastiko seiretan. Feminismoaren inguruko gai baten gaineko pelikulea eskeiniko dabe, berau berbagai izateko ondorengo kopautxoan. Eta kartel bateratuko herrietako azken ekintza Zeanurin izango da. Mazala andra taldea, *Gure herriko andrak gerra garaian* izeneko dokumentala egiten dabil, Zeanuriko andrai jasotako testigantzakaz. Horren gaineko berbaldia eta trailerraren aurkezpena egingo dabe mar-

tiaren 14an, arrastiko 17:30ean, Zeanuriko Kultur Etxean.

### Beste ekintza batzuk

Kartel bateratuak, herriz herri ekintza interesgarrienen arteko zirkuitu bat egitea ahalbideratzen dau, baina hor agertzen diranak ez dira Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan egingo diran ekintza bakarrak. Holan, esate baterako, Zeanurin zineforuma egingo dabe martiaren 3an, *Brave* eta *Sufragistas* pelikulen gainean eta Arteako plazan konzentrazioa egingo dabe martiaren 8an seiretan. Diman be 18:00etan batuko dira plazan Igorreko joateko, eta martiaren 6tik 10era arte, gorputz errealak erakusten dituan argazki erakusketea egongo da liburutegian.

Zeberion, martiaren 10ean, mikromastismoen gaineko tailerra egongo da Udalak antolatuta, 18:30ean udaletxeko bigarren solairuan. Domekan, hilak 12, Eskola Zaharreko hileroko zineforumak, *Bar Bahar* film palestinarra eskeiniko dau 20:00etan, Andren Nazinoarteko Eguna ospatuteko; izan be, pelikuleak Tel Aviv-en bizi diran hiru andra gazte palestinar ditu protagonistak.

Ikastetxeetan, ludoteketan eta gazteleketan, gaia landuko dabe eta Mankomunitadeak eta udalak adierazpen instituzionalak egingo dabez. Holan, aurten ebatziak hartzean diran leketan, andren ordezkaritza orekatua sustatzeko konpromisoa adierazo dau Mankomunitadeak.

## IGORRE

# Gernikaren bonbardaketearen gaineko erakusketea

Luftwaffe-ren erabateko arrakasta. Kondor legioak eragindako Gernikaren suntsipena izeneko erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxean martiaren 6tik 22ra arte.

### Erredakzioa

Hilaren 9an, 19:30ean, *Legion Kondor nazien bidegabekeria iragana eta oraina* dokumentala eskeiniko dabe Kultur Etxean, eta Baskale alkarteko Josu Ibagutxik frankismoaren inpunidadea eta Argentinako kereilaren inguruko

berbaldia be emongo dau.

Alemaniko iparraldeko eskualdeko Historia talde batek egindako azterketan oinarritzen da erakusketea eta ikuspuntu alemaniarra eskeintzen dau. Ez da Gernikako bonbardaketara mugatzen. Lehenagoko Alemania eta Espainiaren arteko hartu-emonakaz hasi eta 1980ko

hamarkadako topaketa naziak arte luzatuten da erakusketea. Gaitzespen politikoa eta kalteen erreparazioen beharra be adierazoten dau.

Dokumentala, barriz, Baskale alkarteak egindakoa da, erakusketatik abiatuta eta Kondor Legioa zelaz sortu zan eta Gernikako bonbardaketan izan eban prota-

gonismoaz egiten dau berba.

### Igorreko bonbardaketearen 80. urteurrena

Igorreko bonbardaketearen 80 urte beteko dira apirilaren 7an. Izan be, 1937ko april eta maiatzean hainbat bonbardaketa jasan eban Igorrek. Ilintia kultur alkarteak azterketa bat

egin dau horren gainean eta maiatzean Igorreko bonbardaketearen gaineko erakusketa bat egongo da.



## ZEANURI

**Gaztetxoentzako haurren lanaren gaineko Bizkaia mailako topaketea antolatu dau eleizak****Erredakzioa**

"Umeak dira, ez esklabuak" lemapean, 500 bat gazte eta gaztetxo alkartuko dira Zeanuriko martiaren 11n. Gernika, Ermua, Galdakao, Arrigorriaga eta Arratiako eskolak, eta parrokia eta katekesiko taldeetako gaztetxoak, Zeanuriko Elizondon batuko dira ume esklabuzaren kontra kontzientzia eta gaiaren salaketara egiteko. To-

paketak Zeanuriko parrokiaren eta Zulaibar Ikastegian izango dira 10:00etatik 18:00ak arte.

Bizkaiko Eleizak urtero antolatutako dituzten gaztetxoentzako topaketak, baina aurtengoa Arratian egiten dan lehenengo urtea da. Eleizak zabalduko datuen arabera, munduan 250 milioe umek egiten dabe behar. Topaketetan, jolas eta tailerren bitartez landuko dabe gaia. Bazkaloan, erromeria egongo da.

## ARTEA

**Umeen aisialdia dinamizetako zerbitzu publikoa kontratatuko lehiaketara zabalduko dau Udalak****Erredakzioa**

Ludoteka eta udalekuak batera aterako dira konkursora. Zerbitzuaren helburua udal ludoteka zerbitzua "planeatzea, artatzea eta kudeatzea" da, Hezkuntza eta Gazteria Udal Zerbitzuen jarraibideak betetz eta eurek koordinatuta. Arteko haur eta gazteen aisialdi programa osagarrien dinamizazioak be garatu behar dituzte kontratautako enpresek. Hau da, oporaldietako eta herriko egun esanguratsuetako programak.

**Gurasoen eskakizunak**

Eskatzen diran baldintzak zehazteko Udala ludotekako gurasoak batzartu zan eta aurrekoen aldean aldaketa batzuk dagoz. Langileen soldak Bizkaiko konbenioan sartu ahal izateko, aurreko urteetan baino diru gehiago ordainduko dau Udalak. Zerbitzua eskeintzen dauan enpreari herriagaz inplikazioa eskatuko jako eta ludotekako ordutegi eta egutegiak mantentzen diren.

Pleguak udalaren webgunean eskuratu daitezke.

**Arteko ludoteka.**

## IGORRE

**Ehundik gora lagun batu ziran Igorreko eraso sexistak salatuteko****Erredakzioa**

"Erasorik ez erantzunik gabe" inoan pankartearen atzean batu ziran igorretarrak eta Arratiako beste herri batzuetatik hurreratutako jentea zezeilaren 21ean, aurreko zapatuan Igorren gertatutako eraso sexistak salatuteko.

Noka Igorreko talde feministek jakitera emondakoaren arabera, zapatu gaubean Igorreko hiru tabernatan eraso sexistak gertatu ziran. Erasotzaileak, neska zerbitzariengan hurreratu eta irain sexistak eta sexualak, bortxaketa mehatxua bame, egin eutsen. Inguruan egoan jentearen laguntasuna izan ebela erasotutako

**Konzentrazinora batutakoak.**

kasu batzuetan, baina "ez guztietan" salatu eban Nokak. Holango egoerak ez gertatzeko guztien konpromisoa

eskatu eta Tolosan izandako eraso sexuala eta Durangoko eraso saiakerak be salatu eben.

## IGORRE

**Gazte Akelarrea aprilean, "Sugarren dantzan independentziara!" lemapean**

Independentziaren alde Gazte Akelarrea Zornotzatik Igorrera.

**Erredakzioa**

Laugarren urtez jarraian, Emai eta Aitzina gazte antolakundeko kideak udabarriko ekimena ospatuko dabe: Gazte Akelarrea. Aprilaren 13, 14, 15 eta 16an izango da Zornotzatik Igorrera.

Hamabost urte Arratian jo barik erorian Berri Txarrak taldea Igorreko Kiñu Gaztetxean egon zan zezeilaren 26an ekimenaren aurkezpen ekitaldian. 600 lagun batu ziran Euskal Herrian aurten emongo daben atzenengo kontzertuaz gozatzeko.

Aurtengo ekimena, martxa eta topagunearen nahasketa bat izango da. Izan be, aprilaren 13an martxan abiatuko dira milaka gazte arrastiz Zornotzatik eta gauez helduko dira Igorrera, bertan egun biz izango dira Bidasoaren alde bietako gazteak. Eta apirilaren 16an Gernikan ospatuko dan Aberri Egunera joango dira azken jantza egitera.

Aurten eskeintza kultural eta politiko handia egongo da, hiru eguneko "aspertzeko denporarik ez izateko". Zapatuan manifestazio nazionala izango da eta beste hainbat sorpresa be aurrerago aurkeztuko diranak.

Berbaldia jagokienez hamaika izango dira jorratuko diran gaiak. Besteak beste, herri poderetza prozesu iraultzaileetan, herrien sostengarritasuna, MST-ko eskola nazionala, lan prekarioen aurkako burrukak, ekonomia feminista,

errefujiaduen afera, marxismoa, ezkerreko mobimentuetako erresistentziak, Sobietar Batasunaren urteurrena, preso politikoen burrukaldiak EPPK-n, gazte mobimentuak, gazteak eta independentzia...

Bestalde, tailer eta txapelketa ugari egongo da. Zuhurgintza, serigrafia, harrigintza, txalaparta eta pasta tailerrak, eta beste alde batetik, esku pelota eta eskalada txapelketak egongo dira. Aisialdirako tartea be egongo da; bakarlarriak, elektrotxaranga, zunba, high line erakustaldiak, giza-futbolina, tirolina... Guraso barik libre olgetan ibilteko umeentzako gunea be egongo da.

"Gaueko sorgintzat" ez da akelarrik faltauko. Gatibu, Sociedad Alkoholika, Willis Drummond, Gatillazo, Anari, Huntza, Koban, Riot Propaganda, Mafalda, La Jodedera... eta beste hainbat taldek

astinduko dabe oholta bariku eta zapatu gauean.

Aurreko ekimenetan legez, aurtent be "hiru su" egongo dira biztuta ekimenean zehar; elikadura, eskeintza kulturala eta zaintza. Hiru horreek berebiziko garrantzia eta pisua izango dabe. Izan be, burujabetzaren aldeko bidean "praktika burujabean aldeko apustua" egiten dabe antolakunde biak.

Igorreko Akelarrearen ostean, aprilaren 16an Gernikan ospatuko dan Aberri Egunearan emongo deuse amaiera aurtengo udabarriko ekimenai.

Hiru eguneko bonoak salgai dagoz Euskal Herriko txoko desbardinetan, Arratian Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Dimako Jentilubini, eta baita eguneko sarrera solteak be gura izan ezker. Martxa, herria eta egitarauaren informazio osoa gazteakelarrea.info webgunean dago ikusgai.

**Berri Txarraren kontzertua Kiñu Gaztetxean.**

## ZEANURI

# Maiatzaren 7an egingo dau Gaure Eskuetan alkarteak herri galdeketea



### Gure Esku Dago Zeanuri eta Gaure Eskuetan

Zeanuriko Gure Esku Dagoren taldea 2014an sortu zan, beste askoren moduan, hiru printzipioen inguruan; "Herri bat gara", "Erabakitze eskubidea dugu" eta "Herritarron garaia da". Bere lehenengo helburua 123 kilometroko Giza Katean parte hartzea izan zan, eta bost autobus bete joan ziran. 2015ean, hautestontziak eta oihalen esangurea landu ziran, futbol zelaia beteteko asmoa, eta abar.

2016an, Gure Esku Dago herri konsultak egiten hasi zan; tartean, Dimakoa, eta han zeanuriztarrai pasau eutseen lekukoa.

Herri galdeketea antolatuteko alkarte bat sortu behar da eta Diman Alkarregaz Gure Esku alkarte sortu zan moduan, Zeanurin Gaure Eskuetan sortu dabe. "2016ko udagoienerako herri galdeketea joatea ebatzita egoan, eta horretarako alkarte bat osatu genduan: Gaure Eskuetan. Berbaldi bat antolatu genduan Zelai Nikolas eta Mario Zubiagagaz urte amaierarako, eta hortik aurrera dagoan protokoloa martxan ipinten gabilz" dinoe Gaure Eskuetan alkartetik.

Mobimentu herritarra izanda eta herri galdeketerako hiru hilabete eskas geratzen diranez, herriko tabernetan batzean da Gaure Eskuetan, lehen frontoian eta orain jubilauean. Aste-oro batzean dira, astelehenetan arrastiko zazpiretan.

Gure Esku Dago dinamikearen barruan, Zeanurin be herri galdeketea egingo dau horretarako sortutako Gaure Eskuetan alkarteak. Itauna, 30 herritar inguruk ebatzi eben talde dinamikearen bitartez, zezeilaren 15ean. Maiatzaren 7an, "Gure dozu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?" pregunteari erantzungo deusie zeanuriztarrek.

### Erredakzioa

Arratian Dimak Zeanuriri pasau eutsan herri galdeketea lekukoa. Diman, herri galdeketea 2016ko zemendiaren 27an izan zan eta "Nahi duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?" izan zan itauna. 765 boto jaso ziran, 729k baietz erantzun eben eta 10ek ezetz.

Gaur arte 38 herritan egin dira herri galdeketeak eta aurten 100 herri baino gehiagotan aurreikusuten dira. Maiatzaren 7an, Zeanurin eta beste herri askotan egingo ditue galdeketeak, Arrigorriagan, Debabarrenan, Durangaldean, Lasarte-Orian, Usurbilen, Lea-Artibain, Legution, Orozkon, Urributroen, Urribekostan eta Urola Kostan.

## IGORRE

# Baso politika publikoen gainean hausnartzeko jardunaldiak

### Erredakzioa

Martiaren 4 eta 5ean Igorreko III. Basogintza Jardunaldiak izango dira, "Basogintza eredu barriak, etorkizuneko politika publikoak eta jentarte ahalduntzea" lemapean. Aurrekoak 2014an izan ziran.

Urte honeetan, zer esana, go-goa eta energiak bildu ondoren, sano egitarau erakargarria pres-tatu dabe Baso Ahaztuak dokumentalak eta Igorre Bizirik-ek. III. Basogintza Jardunaldietaneko partaideak, basoak modu jasangarri baten kudeatzeko behar diran politika publikoak eztabai-datuko ditue, Iñaki Antiguiedad EHUko Hidrologian katedraduna

eta beste aditu batzuen laguntzeagaz; Dimako basoen kudeaketea Foru Aldundiko Mendi Ingeniariak komentauko dau; Sai zuriari omenaldia egingo jako,

eta *Gutik zura* dokumentala eskeiniko dabe. Hurrengo egunean, Muruako basoetatik ibiliko dira partaideak, horreen kudeaketearen barri jakiteko.



Arratiako baso bat.

## ARANTZAZU

# Txorietxeko bidea konponduko da Arantzazun

Arantzazuko kontuak zezeilaren 14an onartu ziran aldeko EH Bilduko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz.

### Erredakzioa

Aurten 439.963 euro kudeatuko ditu Udalak, igaz baino 4.378 gitxiago. Kontu horreen arabera, egingo diran inbersinorik inportanteenak, herriko kaskoan argiak aldatzea eta Txorietxeko bidea konpondutea izango dira.

Txorietxetik Arteako industrialgunera doan bidean "harria bota" eta "txukunduko" dabela dino Igor Menika Arantzazuko alkateak. Lanak urak batzeako asmoa be badaukie. Izan be, han ubide bi dagoz eta bakarra egiteko asmoa agertu dau Udalak. Horretarako 12.000 euroko partidea dago.

Argiai jagokienean, magnesioko argien orde LED teknologia erabilten dabenak ipiniko ditue. "Energia eraginkorraren aldeko apustua egin gura dogu, eta horretarako diru partida bat gorde dogu" dino alkateak. Gainera, argiak aldatuteko diru laguntzak dagoz eta horreek be eskatuko ditue. Plazako argiakaz hasteko asmoa agertu dau alkateak.

Jaietarako be diru gehiago eukiko dabe aurten arantzazutarrak, 18.000 euro hain zuzen be. Igaz "eskas" ibili ziralako dino alkateak eta jaietako diru partidea 5.000 euro igotea ebatzi dabe.

### Goirirantza bideko munurrutua

EAJ-PNVren zinegotzien ustez, Goirirantza doan bidean, Eguzkitze inguruan orain dala urtebete inguru gertatutako munurrutua konpondutea lehentasuna da. Hori dala eta, 41.300 euroko partidea proposatuten eban emendakina aurkeztu eben, diru hori batzeako sei partida aldatutea proposatuz. Hau da, jaietako partidatik 5.000 euro pasau; uri-hornigarrietatik beste 5.000 euro, eta espaloiak konponduteko 4.000 euroko diru partidea kendu, kaleak eta espaloiak konponduteko beste partida



Arantzazu.

bat dagoalako eta errepiatzea litzatekelako jeltzaleen ustez. Txorietxeko urak batuteko diru partidea be kentzea proposatzen eben eta lan honeek mantenimentuko partidatik pagetea. Eraginkortasun energetikoa dala eta, "oraingo argiak energia eraginkortasun azterketa egin ostean" ipinitakoak dirala dino Bego Llano zinegotziak eta horko 12.300 euro Goirirantzako bideko munurrutua konponduteko erabiltea proposatu eban EAJ-PNVk. Azkenik, etxe kalera-tzeak ebitetako eta familiai lagunduteko diru partidatik 3.000 euro hartzeako proposamena be egin eben. Izan be, 6.000 euro egozan eta igaz erabili barik geratu ziralako dino Llano.

Azkenengo hau onartu eban EH Bilduk eta 3.000 euroko diru partidea sortu dau munurrutua konponduteko. "Ez genduan gura herriko bizimodua hipotekau eta beste bide batzuetatik egingo da: ustebakoak, diru laguntzak eskatuta... Beste finanziaizino modu batzuk topauko doguz" dino Igor Menika Arantzazuko alkateak.

## DIMA

# Txakolin Eguna Axpe Goikoa jatetxean apirilaren 1ean

### Erredakzioa

Axpe Goikoa jatetxeak, bere txakolina dastatzeko urtero antolatuten dauan Txakolinaren jaiak apirilaren 1ean izango da,

bazkaria egongo da egun horretan jatetxean. Igaz herri kirolariak eta jantzariak bazkalurretik eta erromeriak ostean girotu eben txakolin dastaketea. Erreserbak egin daitezke daborduko.

**IRATXE GOIKOETXEA. ERROTAKO KOORDINATZAILEA****"Arratiakoa sano gizarte heldua da"**

Arratiaren garapenerako Errota proiektua alkarte bihurtu zan 2016ko urte amaieran. 2017a hasteagaz batera Iratxe Goikoetxea Aldekoa koordinatzaile beharretan hasi zan bertan. Goikoetxea Artea bizi da. Geologia Madrilgo UCMen bukatu ondoren Bartzelonako UPCan masterra egin eta 16 urtez ingeniari enpresa baten egin dau behar ingurumeneko departamentuan, jasangarritasunari buruzko proiektuak garatzen, baita Arrasateko Unibertsitatean irakasle be. Errotariok Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Elkartea koordinetako lan eskeintza ikusi ebanean ez eban dudarik egin; Arratian eta Arratiarako behar egitea, aukera eta erronka polita iruditu jakon eta.

**Erredakzinoa**

**Errota proiektuko lehen bazarrak 2015ean egin ziran. Taldea sortu, oinarriak landu eta diagnostiko bat egin zan Azaro Fundazioaren laguntzeagaz. Zeintzuk izan dira diagnostiko horren emoitzak?**

Diagnostikoa lau ildo edo arlo nagusi bereiztu dira: arlo pribadua, arlo publikoa, hezkuntza eta gizartea. Dana sartzean da diagnostikoa; jasangarritasuna, lana, etxebizitza, gizartea, hezkuntza, enpresa, Lehen Sektorea, Hirugarren Sektorea, zerbitzuak, baliabideak, komunikabideak, lurraldea, gizartea... Lantalde desbardinak egon ziran eta aberatsena da lantaldeetan, ikuspegi desbardinak jentea egon zala. Hortik Ekintza Plana ateratu zan. Han, Errotak ze erronka ikusten dituan beharrezkoenak landu eta 2030erako ikuspegi definidu zan. Hau da, 2030erako Arratia ideala definidu eta hori lortzeako erronka konkretuak zehaztu ziran.

**Zeintzuk dira erronka horreek?**

Sektore baxterako erronka batzuk definidu ziran. Baina erronka



Iratxe Goikoetxea.

honeek ez dira norabide bakarreak, zeharka landu beharrekoak baino. Hau da, Hezkuntza komunitadeak, enpresa komunitadeagaz hartu-emonak izan behar ditu derrigorrez. Arratian industriak nahiko pisu handia dauka eta bertako langileak arduratuta dagoz hemendik eta urte ba-

tzetara jente asko jubilaiko dala. Lanpostu horreek beteteko beste langile batzuk hartuko dira, eta zer hobeto bertako langileak izatea baino? Horregaitik, ikasleak jakinarazoz behar jakie ze beharri-egongo dan bertako enpresetan, euren hezkuntza bide horretatik edo bide horretara zuzendu dagien. Hor dago Zulaibar, Lanbide Heziketako ikastetxea. Zulaibarrek hartu-emon handia dauka enpresakaz, baina zenbat eta handiago izan, orduan eta onura gehiago izango dabez bai enpresek eta bai ikastetxeak be.

Institutuak be, jakin behar dau inguruko enpresen beharizanen barri. Goi mailako ikasketak dituen personak be behar izango dira eta: ekonomilariak, ingeniariak, soziologoak... Hezkuntza eta enpresen artean zubia egin behar da. Errotak zubi horreek eregiten lagundu gura dau.

Ekintzailatza, kultura eta gizartean barnatzea be bada beste erronka bat. Ikasle askok enpresa baten gura dabe lan egin. Eta zergaitik ez sortu lana? Horretarako baliabideak dagoz, laguntzak. Gure gazteak jakinarazoz behar jakie aukera hori be badagoala,

**Errota Fundazioaren gobernantza eredu definidu behar dogu: nortzuk izango diran babesle estrategikoak, babesleak, laguntzaileak, lagunak...**

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igorre-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentratze 100  
R.P.S. 31/06

**Kili~Kili**  
Ampo eta Puntukultura  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 43 81

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel/Fax: 94 657 70 03 - olaetxeoptik@hotmail.es

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridika · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**belagorri**  
mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zeliakoentzat elkagaiak  
estetiziena  
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gas  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

**Bizkaifisios SLk**  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**ugatxa**  
taberna  
Ugarana kalea, 8  
48141 Dirna  
T. 946 129 460

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutzejateak@hotmail.com

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, nº 3. 48330 IJESKOA, Bizkaia  
Tel: 000 481 839 000 / 000 290 717

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**Bizkaifisios.com**



beste bide bat badagoala, norberaren enpresea sortzea, alegia.

Gero ildo guztietan edo zeharka doana da eskualdearen nortasuna edo identitateari garrantzia emotea. Geure euskereari, geure inguruari... komunitate bateko partaide izatearen sentimentua. Nik uste dot horrek aberastu egingaiten gaituala, bai persona moduan baita gizarte moduan be.

### **Zenbat jente dago inplikauta honetan?**

Ehun personatik gora dagoz inplikauta prozesuan, lehenengo urte bietan zehar egin diran batzar, diagnostiko eta foroetan. Eta hor be badagoz inguruko enpresak, zortzi udal eta hezkuntza mailako eragileak be.

### **Zelan ikusten dozu Arratiaren garapen maila? Arratiako gizartea, ze gizarte klase da, zelan definiduko zenuke?**

Arratiakoa sano gizarte heldua da, ohartu dalako hemendik eta urte batzuetara datorren egoerari erantzun bat emoteko lanean hasi behar dala. Zer egin badagoala, baina baita be baliabide asko helburuak lortzeako. Jenteak gogo dauka eta gainera balio handiko jentea da.

Esango neuke gizarte heldua dala eta gainera etorkizuneko erronkai aurre egiteko prestataua, eta prestatuago egoteko gogoz dagoala. Hau da, etorkizun handiko gizartea da. Argi dauka zer lortu gura dauan, non dagoan eta nora joan gura dauan. Eta horregaitik uste dot badagozala bidea egiteko gogoia eta baliabideak.

### **Fundazio izateko beharrean zabilze. Zergaitik?**

Errota proiektuagaz egokien datorren estrukturea dala ikusten da, irabazi asmo bakoa eta onura publikoko egiturea daukalako, Errota Fundazioan danon parte hartzea bermatuta egongo da.

Hori lortzeako, gobernantza eredu bat definidu behar dogu baita finantziatzea be, Errota Proiektua aurrera eroateak gastu batzuk daukaz eta.

Errotak 2017rako dituan erronkak hezkuntza mahaia, industria mahaia eta finantziatzea finkatuta izango dira. Hau da, Errota Fundazioaren gobernantza eredu hori definidu, nortzuk izango diran babesle estrategikoak, babesleak, laguntzaileak, lagunak...

Eta Errotak proiektu batzuk egingiteko asmoa be badauka. Holan, enpresa batek edo udalen batek, Mankomunitateak edo inguruko eragileren batek eskatu ezker, proiektu konkretuak garatuko doguz.

Komunikazioaren aldetik, sarean gagoz. Facebook, Twitter eta webgunea daukaguz eta egiten doguzan ekintzak gizarteari heldu arazoko deusaguz.

# ERROTA, NORTZUK GARA?



Azken urteotan gizarteak jasan dauan egoera ekonomikoa aldatu guran, Arratiako hainbat eragile batzean hasi ziran orain dala urte bi, Arratiako garapen sozioekonomikoa dinamizauko dauan proiektu integral bat martxan ipinteko gogoagaz. Helburua eraldatze sozio ekonomikoaren bitartez, azken urteotako norabidea aldatzea eta danon artean eta danontzako Arratia sendo, jasangarri eta biziteko aproposagoa egitea da, eskualdeko bizitza kalidade hobea lortuz.

Eraldaketa honek, garapenerako beharrezkoak diran lau ardatzak hartu ditu kontuan: Arlo pribaduko sektore guztiak, arlo publikoa, hezkuntza eta jentartea.

Arratiarron parte hartzeagaz, guztiok eregi dogun proiektua da Errota, gure beharrian eta erronkai era bateratuan erantzuteko tresna. Egitekoa, balore batzuk oinarri izanda gauzatuko dogu: personakanako begirunea, parekidetasuna, ingurumenaren jasangarritasuna, epe luzeko ikuspegia, alkarlana, gure kultura eta kulturartekotasuna eta gure hizkuntza, euskerea.

Arratian dagozan sinergiaz baliatuz, eskualdea aldatu eta aurrera eroateko, Tokiko garapena gura dogu, bertatik bertara egindakoa, eskualdeko instituzinoak, eragileak eta herritarrak inplikauz.

Arratiako errealdadearen diagnostiko parte-hartzailea egin da, Azaro Fundazioaren eskutik, orain arte herrietan egindako lana aprobetxau eta eskualdeko eragileen alkarlanaren ondorio. Diagnostiko honetan eskualdearen analisi sozioekonomikoa landu, Arratiako enpresa sarea aztertu, Hezkuntza eta ikerketari jagokon hausnarketea egin da, hau da heziketarako eskeintza eta ikerketa eta garapenari jagokon aldetik, eta azkenik sektore publikoak definidutako planak eta azpiegiturak landu dira.

Lau sektoreetako ordezkariak, diagnostikoa oinarritzat hartuta Arratia 2030 ikuspegia definidu dabe:

Arratia, eskualde euskalduna, bizia, anitza, inklusiboa, jasangarria, kohesiona, erakargarria, personeren arteko aukera bardintasuna, bizikidetzak, hazkunde demografikoa eta justizia soziala bermatzen dituana izan behar da.

Eskualdeko jentartea solidarioa, konprometidua eta danon eskura (ahalbideratuta) dagoan heziketa anitz eta eraldatzailearen bidez, persona gaituak eta sortzaileak (ekintzaile-sozialak) dituana izatera heldu behar da.

Hazkundera eta kalidadezko lana eta enplegu duina lortzeako helburuagaz, gaur egungo enpresa ehunean eta sortuko diran negozioetan lehiakortasuna ahalbideratuko daben esparruak martxan ipini beharko dituana. Hala nola, barrikuntza dinamikak, sektore-

enpresa-lurraldeagazko -nazinoarteko lankidetzak ereduak buztartuz, kanporako proiektuak bultzatuz eta eskualdeagazko lotura bermatuz (gizarte-ekonomia eredu indartuz)... Eskualdearen aukerak aztertu eta daukan ondarea balioan jarri, sektore ekonomiko guztietan -modu jasangarrian- lan esparru barriak martxan ipinteko.

...Eta hau guztiau, arratiarrok, modu aktibo, garden eta herritarren parte hartzea ahalbidetuz eta bere nortasuna mantenduz egin behar dau, beste herrialde batzuek alkarlana be buztartuz.

Eragile guztien beharrianak identifikatu ostean eta Arratia 2030 ikuspegia helburutzat eukita, Errotak dituan erronken definizioa egin da, honek be sektoreka definiduta:

### **Hezkuntza-eragileari jagokon erronka**

1. "Ikas komunitate lankidetzak foroa" sortu, eragile guztien artean, baloreetan oinarritutako hezkuntza saretzeko.

### **Jentarteari jagokozan erronkak**

2. Ekintzaitza kultura eta Ekonomia Sozialaren baloreak herritarrengan sustatu eta enpresea jentarteagaz konektatu.  
3. Eskualdearen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaltu (Herri bakotxaren nortasuna mantenduz), Arratiera (hizkera) be balioan jarri, Arratia erakargarria izateko.

### **Sektore pribaduko erronkak**

4. Nekazaritza, Basogintza eta Abeltzaintzari babesa emon eta indartu, orain dagozan eragileak alkarlanean. Sektorekoen beharrianak identifikatu eta horreek asetzeko bidea egiten lagundu. (Agroekologia suspertzeko kontzientzia indartu, eskoletako jantokietan, enpresetan, komertzioetan... tokiko produktua sustatu).  
5. "Enpresa foroa" sortu, industria sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetu eta dituen beharrianak erantzuteko.  
6. Arratian enplegu sorrera eta mantentzea bultzatu modu aktiboan (ekintzaitza, barrikuntza, barne-ekintzaitza, lehiakortasuna hobetzen lagunduko daben zerbitzuen eskeintza bultzatuz, eskualdeko ekintzaile, enpresa, negozio desbardinaren artean).  
7. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresak lehiakorrak egitea ahalbidetuko daben lehen pausuak emoten lagundu, foroaren sorrera bultzatuz.

Erronkak lortzeako, eragile desbardinaren alkarlana ezinbestekoa izango da. Errotak, erronka bakotxean identifikatutako parte hartzaileen arteko dinamizazioa egingo dau, helburuak lortzea ahalbidetuko dauan haziak hasiz.

Erdu Errotara!

## MENDIA

## III. Kolazinoko Mendi Egunean parte hartzeako izen emotea zabalik



jokatuko dira: 20 km.ko mendi martxea, 35 km.ko BTT lasterke-  
tea eta 24 km.ko mendi lasterke-  
tea, hain zuzen be.

Aurten Junior eta Kadeteentzat moldatutako 15 km.ko ibilbide bat be egongo da, eta mendi lasterketearen barruan, 500 metroko igoera kronometrau bat be badago sari berezia izango daua. Beste barrikuntza bat izango da lehen arratiarentzako saria egongo dala BTT eta mendi lasterketetan, andrazko zein gizezkoentzat.

### Izen emotea

Izen emotea zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean. Abepi Bizkaiko Epilepsia alkartegaz alkarlanean jarraituko dau antolakuntzak eta izen emote bakotxeko euro bat bideratuko dau Abepi alkartearentzat, "Zuen pausu bakoitza gure taupada bat" lemapean.

### Erredakzioa

Aprilaren 8a aukeratu dau Tiritu Kultur Elkarteak, beste urte batez, mendia ardatz hartuta, Mendi Eguna ospatuteko Bedia. Hirugarren edizino honetan, orain arteko ildoari jarraituz, hiru proba

## FUTBOLA

## Gizonak sailkapenean hirugarren

### Ainhoa Duñabeitia

Andrazkoak azken bi partiduetan puntu bat atera dabe. Zezeilaren 19ko partiduan bana bardindu eben Gasteizko Neskak taldearen kontra etxetik kanpo. Azken neurketan, Mariño izan eben aurkari eta galdu egin eban Arratiak. Hurrengo partidua martiaren 11-12 astegoienean izango da San Ignacioren kontra. Arratia hamahirugarren postuan dago sailkapenean, azkena dan Nuestra Señora de Belen taldeagaz bardinduta 18 puntugaz.

Gizonezkoen taldeak sailkape-

neko hirugarren postuan jarraitzen dau 42 puntugaz, Iturrigorrigaz bardinduta. Zezeilaren 18an jokatutako norgehiagokan 3 puntuak eskuratu ebezan Indautxu taldeari 3 eta 1 irabazita. Hurrengo astegoienean, Galea izan eban aurkari eta bina amaitu zan neurketea. Hurrengo partidua (martiak 5-6) etxean jokatuko dabe Astrabuduaren kontra.

Bigarren taldeak ez dau punturik lortu atzen bi partiduetan. Loyola Indautxuren kontra 2 eta 0 galdu eban eta Etxebarri Bren kontra 2 eta 3 galdu eban Arratia Bk. Hurrengo partiduan Artibai izango dau aurkari.

## AZKOREA

## Atutxa eta Mugertza Urrezko Aizkoraren finalerako sailkatu dira

### Erredakzioa

Zezeilaren 19an Oñatin jokatutako finalerdia irabazita, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalerako sailkatu ziran. Finala martiaren 5ean izango da Azpeitian, 12:00etan.

Dimoztarra eta mutrikuarra, Juan Jose Azpilikueta eta Eneko Otañoren kontra neurtu ziran. Lanak egiteko, 21 minutu eta



Mugertza eta Atutxa.

28 segundo behar izan ebezan Atutxak eta Mugertzak eta, 22 minutu eta 33 segundo Lopezek eta Otañok.

Beste finalerdi bietan, Saralegi eta Vicente, eta Arria eta Otaegi sailkatu ziran finalerako.

### Binakako zazpigarren txapelaren bila

Azpeitian irabazi ezkerro, Aitzol Atutxarentzat Binakako Urrezko Aizkolarien zazpigarrena izango litzateke, Mugertzagaz batera laugarrena. Dana dala, ez dala erreza izango uste dau Dimako txapelkunak. "Exijentzia handiko lana da eta hiru bikoteak bardintsu gabiz. Irabazteko aukerak daukazanak, hirugarren geratzeko be baditu".

## IGERIKETEA

## Jone Muñecas Igorreko Igeriketa taldekoak brontzezko domina irabazi eban Bizkaiko Neguko Txapelketan

### Erredakzioa

Jone Muñecas Delgado Igorreko Igeriketa Taldekoak, zezeilaren 19an Galdakaon jokatutako Bizkaiko Neguko Txapelketan hirugarren egin eban 100 metro lepoz frogan, Haur Kategorian. Hori-dala eta, Udako Txapelketarako sailkatu da.

Neguko Txapelketako hiru frogatan hartu eban parte Muñecasek. 100 metro estilotan, bosgarren egin eban eta ezin izan eban bere markea hobetu. Bigarren frogan, 100 metro lepoz, brontzezko domina lortu eban eta hirugarren frogan laugarren egin eban, hirugarrenetik 11 segundo-zentesimatara geratuta.



## TRINKETEA

## Bizkaiko Binakako Trinkete finalerako sailkatu da Lur Ziarrusta dimoztarra

### Erredakzioa

Lur Ziarrustak eta Jon Aranak Trinketeko Bizkaiko finalerako pasea lortu eben Abadiñon zezeilaren 25ean, 30-09 Durango-Leako bikoteari irabazi ostean, Gazte Mailan. Finala, martiaren 3an izango da Abadiñon eta Sospelako Kurene taldearen kontra neurtuko dira Ziarrusta eta Arana.

Nagusi Mailako lehen kategorian be Dimako Txumuluxueta pelota eskolako Ekhi Ziarrusta eta Iker Etxebarriak, finalerdietako partidua jokatu eben bezperan, zezeilaren 24an, Tornosolo-Durangoren kontra. Partidu hau galdu egin eben Txumuluxuetakoak.

Dirabizko Urri lasterketako

# Gure

ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## KIROLA

# Edadekoak kirolera hurreratuteko ekimena martxan Igorren

### Erredakzioa

Zezeilan Igorreko jubiladuak eguenero, bizimodu pasiboari itxi eta kirolera hurreratuteko Igorbili izeneko ekimena ipini eben martxan. Holan, zezeilan eta martian, eguenero 10:00etatik 11:00etara, 25-30 bat lagunek irakasle baten laguntzeagaz, taldeetan batu eta bidegorrietatik ibiltzen urteten dira. Hiru ordu laurden ibili ondoren, azkenengo ordu laurdenean, luzaketak egiten dituen tenisinoak askatu eta lesinoak ebitetako.

Ekimena inoz kirolik egin ez dauan edadeko jenteari dago zuzenduta, bizimodu pasiboa itxi eta bizi kal-

dadea hobetuteko; izan be, edadeko jentea kirola egiten animetea



dauka helburu. Igorreko Jubiladuen alkarreak, ikastaro honegaz, taldean ibiltea ohitura eta zaletasun bihurtu gura dau, eta programatuta dagozan ibilaldiak amaitutakoan, taldeak bazezan segidutea ohitureari eusteko.

Igorbilen parte hartzean dabena pozik dagozala eta "aurrerantzean" jente gehiagok hartuko dauala parte uste dau Jesus Mari Anzola jubiladuen alkarrekoak.

## MENDIA

# Behe Kanpalekura bueltau da Txikon eta hasi da barriro bidea ekipetan

### Erredakzioa

Zezeilaren 25ean, bueltau zan Alex Txikon Behe Kanpalekura (5.250 m.) eta heldu ahala izotz jausia barriro ekipetan hasi zan. Izan be, Alex Txikonnek Everesteko gailurra zapaldu gura dau neguan hau da martiaren 21a baino lehen oxigeno artifizial barik.

Zezeilaren 14ko saiakera arrisurtsuaren ostean, Txikonnek kontratauta daukan agentzia nepaliarrak Beheko Kanpalekura desmontatu eban, Txikonon oneritxi barik. Hori zala-eta, Txikon Katmandura joan zan "urtenbide bila", ze indartsu sentiduten zan eta ez eban gura

Everest-eko tontorra zapaltzeko ahalegina bertan behera itxi. Katmandun, agentziagaz izandako arazoak konpondu eta gero, Txikon helikopteroz bueltau zan zezeilaren 25ean, eta barriro be bidea ekipetari ekin eutsan.

Eguraldia be "alde" eukala tuiteatu eban lemoztarrak egun horretan.

### Ondo eta indartsu

Txikon ondo sentiduten da, indartsu eta kementsu eta bigarren eta laugarren kanpalekuen arteko ekipamentuak bere lekuan jarraituko dabenez esperantzea dauka, zezeilaren 26an bere blogean idatzitakoaren arabera.

# begitu

arratia ubide zeberio

# ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu dabenez berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**

## IKUSKIZUNA

**Erradikalak gara ikuskizuna Lemoako Karabie Gaztetxean****Erredakzioa**

Ane Labaka eta Beatriz Egizabal lasartearrak (Gipuzkoa) bertsoak eta bakarriketak batzean dituan ikus-



kizuna eskeiniko dabe martiaren 10ean, 19:00etan, Lemoako Karabie Gaztetxean. *Erradikalak gara* titulupean, umorez, "erraietatik" egingo dabe bertsotan eta "berri-tsuketan", "erroetara" heldu guran. Ondoren kopautxoak egongo da.

Ekintza hau Korrika Kulturalaren eta Andren Nazinoarteko Egunaren inguruko programazioan dago eta Lemoako Udalak, Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Karabie Gaztetxeak antolatu dabe.

Labakak eta Egizabalek, bertsoa oinarri daukien emonaldi barriak sortzeako lehenengo Lanku Bekea irabazi eben *Erradikalak gara* proiektua garatuteko eta martian hasiko dira taularitzen ikuskizuna. Ane Labaka bertsolaria da eta Beatriz Egizabal ipuin kontalaria eta clown-a.

## ZINEA

**Zinegoak jaialdiko sei film labor Igorren****Erredakzioa**

Zinegoak Bilboko gaylesbotrans nazinoarteko zinema eta arte eszenikoen hamalagarren edizunoko sei film labor ikusteko aukerea egongo da Igorren martiaren 6an. *Ez da ezer!* (Jose A. Cortes Amunarriz, 2015), *Gabber maitalea* (Anne Cazenave-Cambet, 2016), *Ana bueltan da* (Ruxandra Ghitecu, 2016), *Not Guilty!* (Maxim Kuphal-Potapenko, 2016), *Gravido* (Alejandro Duran, 2017) eta *Oh-alaia-izan* (Susan Jacobson, 2015).

**Sinopsiak**

Cortesen filmak gaurkotasan handiko gai bat tratetan dau. Ama bat konturatu da bere semeare, gay izateagaitik institutuan eraso egiten deusiela eta semeagaz egoerari aurre egiteko moduz berba egitea ebartziko dau. Ustekabearen, patuak aurreikusita ez egoan egoera bat ekarriko dau.

*Gabber maitalea* filmak gaztetxo biren istorioa kontetan dau. Hama-hiru urteko Laurie eta Mila basoan jantzan dabilz. Mila Lauriegaz maite-minduta dago eta esan gura deutso.

*Ana bueltan da* film erumaniarrean, Laurak bere lagun Anaren bisitea izango dau. Ana, Errumaniatik, bere jaioterrik etorriko da Ines neskalagunagaz eta gau baten, luperratuta egozan sentimentuak azaleratuko dira.

*Not Guilty!* Alemanian egindako dokumentala da. 1961ean, Heinz

urte biko baldintzapeko askatasunera eta adin-txikiko zentro baten hiru asteko zigorra betetera kondenatua izan zan beste gizon baten belauna laztantzeagaitik; epaia indarrean dago ondino. Alemaniako zigor kodearen 175. artikulua arabera, 50.000tik gora gizon kondenau ziran homosexualak izateagaitik.

Alejandro Duranen *Gravido* filmak Tomasen istorioa kontetan dau. Tomas, jaioterrira bueltatu da eta aurre egin beharko deutso iraganeko mamu eta tolerantzia ezari.

Amaitzeko Susan Jacobson-en filmak Rita hiltzeko prozesuan dagoan andrea dauka protagonistatzat. Ritak beste mundura joan aurretik gauza bat egin gura dau: biloba armairutik ateratzera bultzatu.

Emonaldia iluntzeko zortziretan izango da Lasarte Aretoan.



## BERTSOLARITZEA

**Bizkaiko Taldekakoa Bertso Txapelketan Arratiako talde bi dagoz****Erredakzioa**

Bizkaiko Bertsolari Elkarteak, Bizkaiko Bertsotzale Elkarteak, Bizkaiko bertsolaritza indartuteko helburuagaz Taldekakoa izeneko txapelketa ipini dau martxan. Zezeilaren 13an hasi zan; 30 taldek emon dabe izena, Arratiako talde bi tartean, hiru fasetan jokatu da eta bagilearen 3an izango da finala.

Taldekakoa giro informalean eta jai-giroan gauzatu gura dau

Bizkaiko Bertsolari Elkarteak. Bertsolari hasi barriak plazarako bidea errezteko helburua dauka, eta errazoi desbardinakaitik ohiko txapelketetan parte hartzeako motibaziorik ez daukienai beste aukera bat eskeini gura deutse. Horrez gainera, antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile barrien sorrera be bultzatu gura dau. Eta eskualdeen arteko hartu-emon sendotzeko asmoagaz be jaio da Taldekakoa.

Arratia bi eta Bikotxgane dira bertan parte hartuko daben Arratiako taldeak. Arratia bi taldea, Igor Menikak, Irati Astondoak, Lur Ziarrustak, Ibon Izak, Zefe Ziarrustak eta Jon Urik osotuten dabe. Bikotxganeko partaideak barriz, Iñaki Iturriotz, Illart Gumuzio, Juanjo Respaldiza, Begoñe Olabarria, Belate Olabarria eta Karmelo Uriarte dira. Hiru bertsolarik, gai jartzaileak, epaileak eta laguntzaileak osotuten dabe talde bakotxa.

**Txapelketearen egitura**

Saio bakotxa puntuetako hiru taldeetako epaileen balorazioa gehi publikoaren balorazioa hartuko dira kontuan. Saio bakotxaren ondoren, hiru taldeetatik, ze taldek egingo dauan aurrera ebartzi beharko dabe danen artean.

Taldekakoa hiru fase izango ditu. Lehenengo fasea, bigarrena eta finala. Kanporaketa gehienak hiru taldek jokatu dabez, eta talde batek egingo dau aurrera. 30 taldek emon dabenez izena, lehenengo fasean 10 kanporaketa jokatu dira. Arratia bi taldeari bigarren kanporaketa tokau jako eta Bikotxganeri zortzigarrena.

Lehenengo fasea zezeilaren 13an hasi zan, bigarrena apirilaren 24an hasiko da eta bagilearen 3an jokatu da finala.

## KONTZERTUA

**Peio Ospitalek bere lehen bakarkako lana aurkeztuko dau Igorren****Jon Urutxurtu**

Peio Ospital (1948, Itsasu) abeslari lapurtarrak Igorren abestuko dau martiaren 24an, barikuan. Kantaldia, Arratiako parrokiak martian zehar antolatu daben egitarauaren barruko ekitaldietako bat da eta Igorreko parrokiaren izango da arratiko 19:30ean.

Emonaldi horretan Peio Ospitalek bere lehen bakarkako lana aurkeztuko dau, *Arnasa... Hatsa... Bizia* izenburua daroana. Berrogeta bost urtez Euskal Herri osoan plazaz plaza ibili dan Pantxoa eta Peio bikote ospetsuaren buzarririk askatzeak lan personalagoa egiteko aukerea eskeintzen deusala dino Ospitalek.

Ospital, kantu konprometiduen bidez, 60. hamarkadearen amaieran euskal kulturaren bizkudean parte hartu eben kantari eta intelektualen artekoa da. Hainbatek erresistentzia edota kontra-podereaz berba egiten dau 60ko hamarkadearen amaierako eta 70eko

hamarkadearen hasikerako sasoi hareri buruz berba egiterakoan.

Sasoi ha, berrogeta bost urteko ibilbidea eta hamalau disko atzean itxiz, bere lehen bakarkako lanagaz dator orain Ospital, "disco hau bihurtu bat da, aldaketa sakon bat. Norabide barri bat, bare-aldiaren beharrak eta hausnarketa irrikak sustaturik, azkenean funtsezkoenera itzultzeko: bizia".

"Arnasa... Hatsa... Bizia..." dira hamalau sorkuntzen hari nagusia, baita diskoaren izenburua. "Hau da bizidun guztiak batez be akuitlatzen dituan indarra", dino kantari lapurtarrak, eta segiduten dau, "ez bilatu hemen galderai erantzunik. Soilik entzun Mañex Erdozaintzik aitatzen eban "Biziaren mugimendu dardara", edota Iratzeder-ek "Lurren pil pil gozoa", zuen barruan kantetan!".

Lan hau bideratzeko, laguntzaile parebakoak izan ditu, "bederatzi testu Andoni Salamerok zumarragar olerkariarenak dira, berbakaz jolas-teko daukan trebetasun magikoa

agertuz; testu bat Itxaro Bordarena, beste bat Joxe Arregirena. "Baxurko" (1890-1957) hondarrabiarrek 1937an jarritako bertso batzuk biltzean dira eta beste testu bat dago Martine Larroque xiberutarrarena, berak eta Pitzgarriko beste sei kidek izenpetuta. Azkenik, nik neuk egingandako bertso batzuk".

Musikari jagokonez, "Mixel Ducau izan dot laguntzaile estimau parebako; berak konposatu ditu zazpi doinu; Anton Valverde hiru; Andoni Salamerok bere bi testu musikatu ditu. Xabier Leteren doinu bat be erabili dot, eta azkena herrikoia da. Gauzak soil eta sotil egin gura izan doguz, oinarri hirukotxa erabiliz: abotsa, gitarrea eta pianoa. Moldaketak Mixel Ducau eta Paul Smet flandiar adiskidearenak dira. Benetako alkarlan honek emoten deutso disko osoari ezusteko kolorea, sorpresa goxo bat. Gonzalo Tejadak jarri dau kontrabajua, eta Iñaki Ospital nire semeak, egin ditu grabazio eta nahasketa lanak".

Igorreko kantaldia izango da Hego Euskal Herriaren Ospitalek egiten dauan bere diskoaren bigarren aurkezpena, aurretik Donostian egingo dau eta. Sarrerak Igorreko Gau-Lora kafetegian eta Zeaunuriko Jubiladuen Tabernan dagoz salgai 10 eurotan aurretik erosten badira, eta 12 eurotan egun berean erosita.

## ANTZERKIA

# Pintto Pintto Igorren

### Erredakzioa

Anita Maravillas antzerki taldeak *Pintto Pintto* 3 urtetik gorako umeentzako antzezlan antzeztuko dau martiaren 3an, 17:00etan, Igorreko Kultur Etxean.

Javi Renovales eta Ivan Alonsoren zuzendaritzapean, Miren Larrea eta Valentina Raposo aktoreak emongo deusie bizitza testu bako umorezko istorio samur honeri. Fran Lasuenek egin dau ikuskizun honetarako musika.

Istorioak gure inguruokaz hartu-emonak izateko moduaren gaineko hausnarketea eragin gura dau. Garbitegi baten behar egiten daben behargin biren arteko

hartu-emonak kontetan dau. Erropa garbitegi baten, txukuna, ordenaua eta umore txarrekoa dan langile bat, bere lankideagaz adiskidetu behar da. Azken hau, despistaua, desordenaua eta oso alaia da, eta ez ditu arauak gustuko. Bat-batean galdutako txakurkume bat agertuko da garbitegian, eta agerpen honek munduagazko daukien ikuspegia eraldatuko deutse.



## ZINE KLUBA

# Identidadea landuten dauan filma Igorren

### Erredakzioa

Hilaren lehenengo eguetan Igorreko Zineklubak aukeratutako film bat eskeintzen dau Lasarte Aretoan, iluntzeko 20:00etan. Martiaren 2an, 2013an Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra jaso eban Mariana Rondonen *Pelo malo* filma ikusteko aukerea egongo da.

Pelikula honetan Junior protagonistek bere ule kixkurra lisatu gura dau eskolako argazki baten kantari baten itxurea izateko. "Pelo malo", konnotazio errazistak dituan Venezuelako esake-

reak ule kixkurrari egiten deutso erreferentzia. Pelikuleak gai asko jorratzen ditu: errazismoa,

jentartearen desbardinagazko tolerantzia eza, identidadearen eraikuntzea, sexualidadea eta beste asko, irakurketa desbardinak ahalbidetuz.

Mariana Rondon zuzendaria izateaz gainera filmaren gidogilea be bada. Venezuela, Peru, Argentina eta Alemaniaren arteko koproduzioa da.



## DUNBA

# Denpora-pasak

### Zeanuriko eskolako ikasleak

Kaixo irakurle guztioi. Gu Zeanuriko 6. mailako ikasleak gara: Jaime Alonso, Jesus Costa, Eleder Galartza, Julen Gonzalez, Pablo Gutierrez, Añetz Martin, Julen Meabe, Lur Olabari, Gaizka Ugarriza eta Ibon Unda.

Oingo honetan guri suertau jaku Dunbarako zerbaist egitea eta denpora-pasa batzuk egitea ebatzi dogu. Ea gustuko dozuezan!

Hasteko, goazen txiste batzuekaz barre algarak egiten:

Neska batek bere lagunari azaltzen deutso:

- Nire senarrak arrosa bat oparitu deusta. Berak esan eustan petaloak jausi egiten diranean, ni ikustera etorriko dala.

Eta bere lagunak erantzun eustan:

- Ze maitagarria. Zergaitik zagoz hain triste?

- Plastikozko arrosa dalako.

Zer egiten dau behi batek begiak zarratuta?

Esne kontzentraua.

Irakasleak Jaimitori galdetzen deutso:

- Jaimito esan aurkitzaile baten izena.

Eta Jaimitok erantzun:

- Zu irakasle, egunero deskubriduten dozulako galderen erantzunak ez dakidazala.

Barraskilo batek bere lagun bat topatzen dau oskol barik eta galdetzen deutso:

- Nora zoaz oskol barik?

- Txixxxxx... etxetik iges egin dot.

Soldadu batek galdetu deutso beste bateri:

- Zertan zabilz?

- Hemen!! Emazteari idazten!

- Eta zergaitik idazten dozu hain astiro?

- Nire emazteak ez dakialako azkar irakurten.

Kartzelara sartu barria dan batek galdetzen deutso beste bateri:

- Eta zu zergaitik zagoz hemen?

- Ez deustelako urtetan ixten!!

### Kapazak izango zarie hurrengo bideojokoaren izenak letra zopa honetan topatzeko?



**Bideojokoak:** Pokemon, Resident Evil 7, Ark, Clash Royale, For Honor, Fifa 17, Call Of Duty, Uncharted 4, Geometry Dash, Happy Wheels, GTAV eta Minecraft.

### Segidu daigun; hona hemen oingoan asmakizun batzuk, gai izango zarie danak asmatzeko?

Danak zapaltzen nabe baina nik

ez dot inor zapaltzen. Danak galdetzen dabe non nagoan eta nik ez dot galdetzen non dagoan. B letratik hasten da.

Bi mendiren artean tiro zaratsua, sudurra itxi arazoten dauan tiro usaintsua. P letratik hasten da.

Oso ondo zaintzen dot etxea, ez dot zaunka egiten baina hortzak daukadaz. Zer naz? G letratik hasten da.

Maindiren bat, harizkoa ez, guztia estaltzen dau eta ura ez. E letratik hasten da.

Buru handia, baina leporik ez, eperdi mobikorra, baina hankarik ez. B letratik hasten da.

Agertu eta desagertu, desagertu eta agertu, kalean daroat nigandik gertu. Zer da? I letratik hasten da.

### Eta amaitzeko, kurutzegrama bat prestatu dogu, ea kapazak

dan Europako estadia.

2.- Ordenagailu bategaz lan egiten dozun lekua.

3.- Eperditik botaten dogun gasa.

4.- ETB1eko gazteentzako arrakasta handiena izan dauan programea.

5.- Amerika topau eban personea.

6.- Gehien kutsatzen dauan estadia.

Ezkerretik eskoiera:

1.- Gure gorputzeko hazurrik luzeena.


2.- Euskal Herriko oingo Lehendakaria.

3.- Hiltzaileen bideojoko bildumea. Jolas bat Black Ops 3 da eta Fire Brea pertsonajea agertzen da.

4.- Lehenengoetariko bideo-konsolea, karratua eta mobikorra.

5.- San Mames zaharrak euki eban urteetan.

6.- 2016an gehien saldu zan bideo-konsolea, Play Stationen 4. konsolea.



## AGENDEA

### MARTIAK 1 IGORRE

19:00etan, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak-en batzarra Kultur Etxean.

### MARTIAK 2 DIMA

19:00etan, jaietako batzarra, batzar gelan.

#### IGORRE

10:00etan, Igorbili, jubiladuak kirolera hurreratzeko ekimenaren saioa.

20:00etan, zine kluba. *Pelo malo* (Mariana Rondon, 2013) Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

15:00etan, AUMk antolatutako Gurasoentzako tailerra. 2-5 urte bitarteko umeen gurasoentzat. Kulturguneko gela lilan.

### MARTIAK 3 ARTEA

Hilaren 15era arte, Udalak eta Arteako andrak Euskal Fondoa Erakundearen eskutik antolatutako erakusketea *Emakumeak Afganistanen* Kultur Etxean. Astelehen eta martitzenetan 16:00etatik 17:30era, eguazten, eguen eta barikuetan 16:00etatik 19:00etara eta zapatu-domeketan 12:00etatik 14:00etara.

#### DIMA

19:30ean, konzentrazioa, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

#### IGORRE

17:00etan, Anita Maravillas & Portal 71ren *Pinto Pinto* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Kirlan eta Udalak antolatutako Frontenis Txapelketa mistoan izena emoteko azken eguna. Kiroldegian.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 5era arte, Luz Ardiden-en eskiatzeko urtekera.

#### ZEANURI

17:30ean, *Brave* eta 19:30ean, *Sufragistas* zineforuma Mazalak antolatuta. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

Kandelak egiteko tailerra Gaztelekuan.

### MARTIAK 4 AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Areatzatik Pagomakurrera doan PR BI 9aren berrikuspenera egiteko aukerea martiko zapatu guztietan. Astronomia gaua. Gorbeian neguko zerua ezetuteko aukerea Betelgeuse astronomia alkartearen eskutik.

Molly Malone festa The Quiet Corner-en.

13:00etan, Urdaibai Folk eta 20:00etan, Dirty Old Band.

#### IGORRE

13ra arte, jubiladuen egonaldia Baños de Fiteron.

III. Basogintza Jardunaldiak.

22:00etan, zinea *La La Land. La ciudad de las estrellas* Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

09:00etan, Kirlan eta Lemoako Udalak antolatutako mendiko urtekera (15 km.). Kiroldegitik.

#### ZEBERIO

Jolas kooperatiboak Gaztelekuan.

### MARTIAK 5 BEDIA

Kanporamartxo. Ganguren Mendi Taldeak antolatutako goizeko urtekera.

#### IGORRE

III. Basogintza Jardunaldiak.

15:00etan, Eskean Kristö taldeak bideoklipa grabauko dau kiroldegiko igerilekuan. Hurreratzeko diranentzako opariak egongo dira. Izena emoteko

idatzi zapatameheak@gmail.com helbidera.

17:00etan zinea, *Ballerina* (euskeraz); 19:30ean, *La La Land. La ciudad de las estrellas* Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

18:00etan, berbaldia "Diru sarrera minimoak zelan zehaztu?" Elkartzen-en eskutik Karabie Gaztelekuan.

### MARTIAK 6 BEDIA

Hilaren 23ra arte, Udalak antolatutako Txiki-Txokorako (3-4-5 urte), Udalekuetarako (6-12 urte) eta Bediako Uda Gaztean (13-21 urte) izena emoteko epea. Txiki-Txoko eta udalekuak garagarilaren 3tik 14ra, eta Uda Gaztean-eko biatzea, Santiagoko bidea: Donibane Garazi-Lizarra.

#### DIMA

Hilaren 10era arte, *Orbanak* Amaia Aparicioaren argazki erakusketea liburutegian.

#### IGORRE

10:30-12:30, Andra Migratuen Topagunea. Mirian Herbonegaz Kultur Etxean.

Hilaren 22ra arte, *Luftwaffe-ren erabateko arrakasta. Kondor Legioak eragindako Gemikaren suntsipena* historia Erregionala aztertzeako Arbeitskreis Regionalgeschichte Lan Taldearen (Neustadt, Alemania) erakusketea Kultur Etxean.

19:00etan, Matxalen Legarretaren berbaldia "Etxeko lana eta zaintzan dohaintzan emondako denporea: beteteko betebeharra?" Kultur Etxean.

20:00etan, Zinegoak Bilboko gaylesbotrans 14. Nazinoarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia. Sei film labur. Lasarte Aretoan.

## Yasmina Rezaren *Jainko basatia* antzezlan arrakastatsua Igorren

Txalo Produkzioak-ek, *Jainko basatia* antzezlan taularatuko dau Igorreko Lasarte Aretoan, martiaren 10ean, iluntzeko 20:00etan. Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi dira aktoreak.

Komedia dramatikoak da Yasmina Reza antzerkigile frantziarraren lan hau. Bikote ezkondu bi alkartzan dira euren seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko asmotan, bikote baten semeak beste eraso egin deutsalako. Baina giza-legez eta edukazino handiz hasi dan bilereak beste bide bat hartuko dau.

Jatorrizko bersinoak arrakasta handia izan eban Frantzia eta hizkuntza askotara itzuli da: ingelesera, frantsesera, gaztelaniara eta euskerara, barbarako.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### ALOKATZEN DA

100 m<sup>2</sup> dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

#### SALGAI

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

#### LED TELEBISTA SALGAI

46 pulgadako Samsung markakoa. 1920x1080 erresoluzinoduna. Deitu 649 979 115 telefonora.

### DANERIK

#### LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

#### ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa

alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

#### TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

#### LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [beginu@topagunea.com-era](mailto:beginu@topagunea.com-era). Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Jainko basatia* antzezlanerako.**

2 **Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxoak.**

Gotzon Aurrekoetxea (Dima)


Yasmina Beobide (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hoben. 2.- Konsonantea. Azpildura.  
3.- Astatoa. Euskal mitologiako pertsonaia. 4.- Sua iruntsi egiten dau. Nitrogenoa. 5.- Bokala. Uso ar.  
6.- Pluraleraz, legea. 7.- Adaki. Musika nota. 8.- Elementu kimikoa. Berrogeta hamar erromatar. 9.- Uhurika.

### GOITIK BEHERA

1.- Salda-baltz. Gorputz atala.  
2.- Letra bat. Tantaloa. Trebe.  
3.- Errepetiduta, kontuz. Osatu.  
4.- Polizia-etxea. 5.- Ulu. Bete, ase.  
6.- Birritan, erreskadan. Informatikan, memoria. Bokala.  
7.- Doministiku. Birritan, dardaratzearen onomatopeia.




Topau biajeteagaz loturaren bat daukien zazpi gauzaren izenak.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | O | R | O | E | N | T | X | O | L |
| I | K | E | P | O | L | X | E | S | I |
| T | A | K | E | B | U | A | N | T | Z |
| S | O | N | K | A | T | R | O | A | K |
| A | B | R | I | T | E | T | I | D | A |
| S | U | A | M | K | I | E | G | U | R |
| O | G | E | N | H | Z | L | U | A | E |
| N | I | K | E | O | I | A | S | N | B |
| T | A | I | Z | T | N | E | G | A | A |
| Z | U | L | I | E | A | T | X | E | Z |
| I | R | T | E | L | U | G | A | R | H |
| A | D | E | L | A | N | K | A | I | O |
| H | I | K | O | N | U | P | E | B | U |
| U | J | E | B | R | A | U | N | A | Z |
| G | I | L | E | M | O | R | K | E | B |

# AKI MI KO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



umean moda  
**sew**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten  
dogu Bizarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnos. 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskaltel.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRAZIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis  
Corbacho  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO**  
AUTOZERBITZU  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoz 94 631 36 31 Faxoz 94 673 70 80  
e-posta: uruzulu@euskaltel.net

## EDORTA ALONSO ETA INMA SAGARNA

**"Auzolanean eta autogestinoan sinisten dogu"**

Zeanurin kultura bultzatutako asmoz, Eguzkiola Kultura Alkartea sortu da. Izena, "Basakeriak suntsitu gura izan eban kobazuloaren izena da Eguzkiola. Herri ekimen eta bultzadaren ondorioz, ondino bizirik dirauana". Inma Sagarna eta Edorta Alonso azkeneko urteetan hainbat taldetan ibilitakoak, Eguzkiola proiektuan sartu dira, ilusino handiz, beste kide batzuek batera proiektua aurrera aterateko.

**Erredakzioa****Eguzkiola alkarde kulturalaren partaide zarie. Zelan ikusten dozue Zeanuriko bizitza kulturala?**

Zeanurin ekintza kulturalak egiten dira. Ezin esan geinke ekintzarik egiten ez danik, baina guk beste era bateko kultura sustatu gura dogu. Konsumo kultura batetik harago begira gabiz gurean. Entretenimenterako kultura garrantzitsua da, eta oso ondo dago, baina guk jentearengan hausnarketea be sortu gura dogu gure ekintzakaz.

Ondo pasau, ikasi eta lan egin. Gure ustez, kulturearen bitartez, herriak, inguru eta gizartea (jentartea) eraldatzen dira.

Kultureak, aldaketa personala eta giza-baloreetan eragina dauka, eta guk bide horretan behar egin gura dogu.

**Zergatik sortu da Eguzkiola? Zeanurin baegoan beste alkarde bat, Ipizki, urte askoan lan egin dauana. Ze antzekotasun eta desbardintasun daukazue****beste alkardeakaz?**

Zeanurin baegoan, lehengo urterarte Ipizki alkarde kulturala, baina lan esparruak oso desbardinak dira. Gorbeialdeko garapena eta patrimonioaren zaintza zan Ipizkiren lan ildo nagusia, eta zentzu horretan hutsune bat gelditu dala esan geinke.

Eguzkiola beste era bateko herigintza baten sinisten dogulako sortu da. Guk auzolanean eta autogestinoan sinisten dogu. Eta herritar guztien bardintasunean, bai maila lokalean, -gure funtzionamentua asanblearioa eta transbertsala izango da- bai maila globalean, herritar, kultura eta hizkuntza guztien bardintasunean sinisten dogu, klaseen gainetik.

Beste alkardeakaz hartu-emonak naturaltasunez ikusten doguz. Alkarlaguntzarako prest gagoz eta ekimen bateratu batzuk aurrera eroateko zabalik.

**Noz sortu zan Eguzkiola eta zenbat partaide ditu? Zein alorretan egingo dau behar?**

Eguzkiola aspaldian eratzen hasi

zan proiektu bat da. Kide batek esaten dauan moduan "su gainean apurka-apurka egosten" joan dan lapikoa da. Aurrez dik saiakera batzuk egon diran arren, igazko urterarte ez deusagu forma errealik emon. Zeanuriko plazan daukagu kokagunea. Guztira 20 bazkide inguru gara, baina proiektuagaz interesa erakutsi daben personak gero eta gehiago dira. Eguzkiolara hurreratutako eta bazkide izateko konbitea zabalik dauka norabide berean lan egin gura daben guztiak.

Gure lan esparruak oso zabalak dira. Alkardearen printzipio diran lan ildoetatik aparte, (natura, genero bardintasuna, euskerea, herri eta klase bardintasuna) egonezina sortuten deuskuen beste edozein alor be tratauko dogu.

Baina gure filosofian, argi daukagu, ondo pasetea be oso inportantea da, eta lantresna, auzolana.

**Ze motatako kultura ekintzak bultzatu gura dozue? Plan edo proiekturik badaukazue?**

Berziklapen eta berrerabilpenaren gaia lantzeako, eta gure ingurugazko hartu-emonak egunerokotasunean, euskal mitologiaren bueltan, esaterako, ekintzaren bat burutu dogu, Arte eszenikoak, persona eta herriagazko alkartasuna...

Momentu honetan gure alkargunea izango dan lokala konponduten gabiltz auzolanean. Haziak ereiten gabiz gero uzta batu ahal izateko.

Lokalak be proiektuaren parte inportantea izan gura dau; hau da, herriari eta herritarrei espazio zabalak, umeak, gazteak, helduak zein nagusiak askatasunean erabilteko.

**Alkardeak jente desbardinaren topagunea izan gura dau, ezta?**

Eguzkiola zabalik dago jakinmin antzekoak dituan eta bide horretan lan egin gura dauan edozeinentzat. Eta gure babesa eta laguntza izango dabe holango proiektuak.

Aurreko aste baten atez ateko buzoneo bat egin genduan Zeanuritik gure proiektuaren nondik norakoak azaldutako baina konbitea zabalik



dago herriko mugetatik kanpora be. Bazkidetza eredu bat proposatu dogu gure autofinantziatzea aurrera eroan ahal izateko, baina ez da bazkide izan beharrik gureru hurbildutako.

**Programazioa egiteko orduan beste herriak kontuan izango dozue edo era independente baten lan egingo dozue?**

Eguzkiolak ez dau irla bat izan gura. Guretzako oso garrantzitsua da gure ekimenak mundura zabaltzea eta guk be beste herrietako ekimenez gozatu eta ikastea. Alde horretatik ahaleginak egingo doguz beste herrietako ekimen garrantzitsuak errespetetan. Eta alkarlanean aurrera eroan daitekezan ekintzak aurrera eroaten.

**Zelan planteetan dozue harremanak udalagaz, herriko beste alkardeakaz eta beste herriekaz?**

Era naturalean beti be. Gu alkarlanerako prest gagoz gure askatasuna eta filosofia errespetetan dan heinean. Edozein herrietako edozein erakunde eta alkardeagaz. Lehen esandako moduan bardintasunean sinisten dogu, hau da transbertsalidadean, eta ez dogu podere harremanik gura. Argi daukaguna da, ez dogula sortu gura erakunde eta beste alkardeakazko ezelango menpekotasunik. Askatasunez lan egitea da Eguzkiola proiektuaren

ardatza.

**Izenak kobazulo bateri egiten deusgu erreferentzia. Non dago kobazulo hori?**

Barazar eta Ubide artean dago, Zeanuriko lurretan. 34 Ha.ko kantera bat egitea proiektu zan bertan eta kobazulo hori galtzeako zorian egon zan. Makroproiektu honek zeresana emon eban herrian. Herritar batzuk horren kontra altxatu ginan. Zorionez gaur egun kanterearen proiektu hori geldirik dago eta kobazuloa bizirik.

Kobazuloak injustizien kontra egindako lan eta burrukea irudikatzen dauz neurri baten. Irudimena eta lana dira gure armak.

**Hasi zarie beharrean? Zeintzuk dira egingo dozuezan lehen ekintzak?**

Beharrean bagabiz. Beharra ez da falta. Momentuz alkarde sortu, funtzionamentua zehaztu eta batez be gure kobazuloa (lokala) egokitutako lanetan gabiz burubelarri. Udabari aldera webgunea sortu eta aurkezpen formal bat egitea espero dogu eta lehen ekintzak azaltzea. Mahainguruak, tailerrak eta musikea ez dira faltauko. Herritarren proposamenak be aintzat hartuko doguz, guretzako hori aberastasuna da eta. Bazkide izateko edo proiektuaz gehiago jakiteko eguzkiola@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke.

# ALKIZABAL

**ZURE BEHARREI ERANTZUNA**

**Bolunburu Poligonoa, 19**  
**Amorebieta - Lemoa errep.**  
**48330 LEMOA (Bizkaia)**

**Tel. 946 31 44 06**  
**Fax. 946 31 20 26**  
**alkizabal@alkizabal.net**

**www.alkizabal.net**

**Basoak garbitzeko makineria**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

**ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA**